

POZEZKO ITZAK, (C. O, TA M-RI).¹

Aundia dizu biotzeratu,
Baña amorioz, maitea,
Samintasuna gure Jainkoak
Aundia miñ-ujoldea,
Indar-betean agertu dediñ
Eramankizun zurea.

Gogorra da bai aranza-uztai
Kopeta estutzen dizuna;
¿Zér arritzeko arkitzen bada
Zimurtasunez illuna,
Aize izoztuz oyal kuškurtu
Ichura agertzen diguna?

Progatzen zaitu zerubak ondo:
Naigabearen labean
Garbitzen du bai zure biyotza:
Naiz ez ikusi batean
Nolatan dagon gogortasuna
Barrunbe amorez betean.

Biotz nekatu ori dirudi
Zerubak jotzen dubela,
Ondatzeko bai, ez edertzeko,
Erabillirik zizela
Kolpe pollitez, distia dezan
Arturgi eder bezela.

Zure biotzak arpa dirudi
Gau legor baten utzia
Ipar-aizetan; andik aurrera

Emanik beti tristia
Inziri, negar, dolamenduzko
Soñu samiña guztia.

¿Zorigaiztoa zeñ gogorra dan,
Maitea, ta zeñ okerra!
Kendu dizula orr-orrika,
Irudizkien ederra,
Nolata aizeak atara oi duben
Akazi-loreen susterra.

Aiskide amore ta lotoskira
Jargoi zaizkizun egundik
Biotz-ondoan; iru lezoi an
Iriki-tuzte bertandik
Illabetea, ta ille berean
Lapurtu iru biotz zugandik.

¿Zér da miretsi, ikusitzean
Zere babes ta lagunak
Zugandi igesi; ta eramanaz
Patu-gudu añ astunak,
Garaitutzea zure biyotza
Naigabearen illunak?

Ez alabañan; ez da gaindua
Zure biotza; goi dago;
Patu gaistoen indarrak baño
Bera arkintzenda zallago;
Sinismenaren eskutarmakiñ
Bortizki dabil gorago.

(1) Traduccion de la poesia *Paraulas de consol*, de Rubió y Ors.

¿Zér dizu aizeak sastakatzea
Zure ontziko zapiyak
Itsas-gazian? Ez dizu ezer:
Jaunagan beti begiyak,
Arraunka-ituzu aizapi-bage
Garai baga-arro guztiyak.

¿Zér dizu zuri, burrukatzea
Ekaitzak zere aurrean,
Baldiñ bazaude seguru estalpe
Uste-onezko kayean,
Are obeto chori-bat baño
Burnizko kayola onean?

¿Zér da zuretzat arazoaren
Gabak zu bide erdian
Arrapatzea? Ipar argironz
Miñez buruba goitzian,
Izar-au beti arkitzen dezu
Distiadura betian.

Bedeinka bedi Jainkoa; bada
Urikaldua ziñala,
Itsas ujolen jostallu-bizi;
Ikusi dezu badala
Esku chit on-bat, ta zu sartzeko
Kayera pozik ai dala.

Bedeinka bedi Jainkoa; zerren
Patu gogorren tiroak
Zapal dituzun, bada egiñ ditu
Jaunak legoiak maltsoak,
Mistutzeraño Daniel bere
Igarlearen orpoak.

¡O zeñ gozoak biyotz sumiñduz
Zuk egiñdako negarrak
Izango diran, ene kutuna!
Aitzen ditu, bai, deadarrak
Aita maiteak; zuretzat ditu
Dauzkan amore sugarrak.

Illeak baño kezka geyagoz
Bazaitzu-ere nekatzen
Buruba; ainbeste apañkiz dizu
Billertsi ederra loratzen;
Begira zuri Jaunak zerutik
Guztiyak ai da kontatzen.

Paketu bada biotz on ori;
Jakiñik, maite nerea,
Jakiñik ondo zeñ laburra dan
Emengo eramatea;
Gabak eguna dakarkigula,
Kimu-berriyak lorea.

Naigabeturik badariola
Malko garratz bat amari
Ikus badezu; apaz bil-zazu,
Nola oi dien goiztari
Euzki gorriyak intza bildutzen
Muñka orriyen ñantari.

Esan eiozu: «Ez negarrrik, ez,
Amacho maite; biziko
Al gera, biyok bildurrik-gabe:
Egun bat zaigu argiko,
Non alkar batu, Zeru-bizitzan
Poz eta amorez betiko.»

JOSÉ IGNAZIO ARANA KOAK.

